

Esklabo-iraultzak erromatar errepublikaren krisialdian: gizarte-gatazken eredu bat

Denis Álvarez Pérez-Sostoa
Historialaria

K.a. II-I. mendeetan Erromatar Errepublikak momentu latzak bizi ditu. Gerra zibilek eta gizarte-gatazkek astintzen duten momentu berean esklabo-iraultzak agertuko dira, bi Sizilian eta bat, Espartakorena, Italiar Penintsulan. Artikulu honen bidez begirada bat ematen zaie esklabo-iraultza horiei iturri klasikoek jasoriko informazioaren harira.

By the II-I centuries B.C. the Roman Republic is suffering civil wars and social troubles. Meanwhile two Slave Wars in Sicily and other one in Italy, lead by Spartacus, have surged in a couple of years. We would like to expose those Slave Wars and their background according to the Classics.

«Esandakoan argi geratzen da esklaboaren izaera eta ahalbidea zein den: esklaboa da izaeraz gizakia izanik beste baten jabegoa dena eta bere buruaren jabe ez dena» (Aristoteles, *Politika*, I, 4, 1254a4).

«Beraz, argi dago halabeharrez batzuk askeak direla eta beste batzuk esklaboak, eta azken horientzat esklabo izatea zuzen eta komenigarria da» (Aristoteles, *Politika*, I, 5, 1255a11).

1. Errepublika Erromatarra K.a. II-I. mendetan: gainbegiratu bat

Erromako Errepublikaren azken bi mendeek tradizioaren arabera K.a. VI. mendearen amaieran sortu zen gobernu-era baten amaierara eraman zuten. *Grosso modo* hartuta, Grakotarren garaitik (K.a. 133-121) Actiumgo bataila arte (K.a. 31) Errepublika mantentzen zuten oinarriek kolpe latzak jasango dituzte. Erroma etengabeko gerretan sartuta egongo da, bai kanpoan, bai penintsula italiarrean bertan ere. Gizarte-mailan ere gorabehera garrantzitsuak gertatuko dira. Gizartean erromatar hiritarren artean jazoko dira gatazkak, baina baita beheko mailetan ere eta honen adierazle nagusia esklaboen iraultzak izango dira. K.a. 31. urtetik aurrera Gerra Zibilak amaiturik egongo dira eta Augusto izango da garailea. Printzipatua ezarriko da, eta jarraian Inperioa, K.o. V. mendea arte luzatuko dena.

Garai honetan Erromak Mediterraneoaren gaineko kontrola erabateko bihurtuko du. K.a. 149-146 bitartean III. Gerra Punikoa izango da eta, Katonen hitz famatuei oihartzun eginez, Kartago suntsitua izan zen¹. Itsasoaren gaineko kontrola Erromaren esku geratu zen, nahiz eta piraten fenomenoak gogor azalduko den, batez ere Mediterraneoan ekialdean. K.a. 111-105 bitartean Jugurtaren aurkako borroka egingo da Afrikako iparraldean eta K.a. 113-101 bitartean zinbri eta teutoien aurka Galiako hegoaldean. K.a. 88-66 bitartean Pontoko Mitridatesen aurkako gerra batzuk egingo dituzte.

Barrura begira, egoera ez da askoz hobea izango. K.a. 133an Tiberio Senpronio Grakok *lex agraria* bat plazaratuko du, eta eraila izango da. Urte horretan Pergamoko Atalo III.a hil egin zen, eta erreinua erromatar herriari utzi zion. Lurra beraz *ager publicus* barruan geratuko zen eta Tiberio Grakok herritarren artean banatzea eskatu zuen. K.a. 123an Kaio Senpronio Grakok anaiaren ideiak berreskuratuko ditu eta bera ere eraila izango da. K.a. 91an Marko Livio Drusok berriz ere plangintza berdina berreskuratuko du plebearen tribuno izendatzen dutenean. Legeak nekazariei *ager publicus*aren atalak ematea proposatzen zuen. Druso bera ere erailten dutenean *bellum sociale* edo aliatuen gerra deiturikoa piztuko da. Erromaren aliatu italiarrak Erromaren aurka altxatuko dira K.a. 91-89 urteetan. Gerra amaitu eta berehala, gerra zibila piztuko da Luzio Kornelio Silaren, *optimates* edo alderdi kontserbadorearen ordezkari zenaren, eta Gaio Marioren, *populares* alderdiaren ordezkariaren artean. Mario K.a. 86an hil ostean, Silaren

1. Marko Portzio Katon Zentsorea (K.a. 234-149) K.a. 157an Kartagon enbaxadore-lanetan aritu zen. Hiria boterea ikusirik, Erromara itzultzean Senatuko bilera guztiak *Ceterum censeo Carthaginem delendam esse* esaldiarekin amaitzen zuen, hau da, «Bestalde, Kartago suntsitua izan behar dela pentsatzen dut». K.a. 146an suntsitu zuten erromatarrek hiria eta III. Gerra Punikoari amaiera eman zioten.

aurkaria Zinna izango da, baina Sila Erromarantz abiatuko da eta garaile irtengo. Horrela, K.a. 82-79 artean Silak diktadura ezarriko du. K.a. 77-71 artean Hispaniara zabalduko da gerra zibila, Ponpeio eta Sertorioren artean hain zuzen ere. Ponpeio jadanik hildako Silaren alderdikoa zen bitartean, Sertorio Marioren alderdikoa zen.

Epe horretan eta oso momentu estrategikoetan hiru esklabo-gerra gertatuko dira. Lehen Grakotarren garaian gauzatuko da, K.a. 136-132 artean eta Sizilian. Horrekin batera, Pergamon Aristoniko altxatuko da Atalo III.aren erabakiaren aurka. Bigarrena K.a. 104-101 artekoa da, berriz ere Sizilian; Jugurtaren aurkako gerra amaitu berria da eta zinbrio eta teutoien aurkakoa oraindik egiten ari da. Azkena, Espartakoren Gerra, K.a. 73-71 artean izango da, gerra zibila pil-pilean dagoen unean. Gerra horiek erromatar gizartearen ereduaren eta ekonomiarako erabiltzen zuen sistema esklabistaren ondorio zuzen bezala ulertu behar dira.

2. Aitzindariak

Erromatar Errepublikaren ekonomia esklaboen lanean oinarritzen zen. Esklaboak gerren bidez lortzen ziren gehienetan. Erromak batez ere ekialdetik ekarri zituen esklaboak, Egipto eta Asia Txikitik.

Los esclavos eran extranjeros importados por la fuerza, a quienes se explotaba en un grado y manera que los ciudadanos no habrían permitido. (Hopkins, 1981: 141).

Sizilia eta Italia hegoaldean oso modu garrantzitsuan erabiliak izan ziren esklaboak. *Res mobilis* edo bizidun objektu bezala ulertu beharra dago esklaboa. Jabetza bat gehiago zen. Beraien egoeragatik protesta egiteko, hainbat erresistentzia-modu egin zituzketen: lan gutxiago egitea, alferkeria etab. Erresistentziaren adierazle muturrekoak esklaboen iraultzak izaten ziren.

Matxinada horietan batzuetan lurjabe txiki eta pobreek laguntzen zituzten, baita jabe ertain batzuek ere. Hori bai, esklaboen erresistentziak oso gutxitan eramaten zuen hilketa eta iraultza argi batera; gehienetan iruzurra, gezurra eta alferkeria izaten ziren erabilitako bideak (Hopkins, 1981: 150). Mundu erromatarraren barruan aspaldidanik ahazturik zeuden esklaboen iraultzak ekarri zituen berriz ere K.a. II. mendean latifundismoaren zabalpen izugarriak eta lanesku esklaboaren gehiegizko erabilerak (Pareti, 1953: 290). Gainera, esklaboen beren nahiak kontuan hartu behar ziren. Bizimodua hobetzeko ametsari eusten zioten, eta jaiotzez esklabo ez zirenen artean nahia are sendoagoa zen.

Arestian aipatu bezala, lanesku-tresna hutsak baino ez ziren, jabetza pribatu bat. Jabeak esklaboaren bizitza, lana eta heriotzaren gaineko erabateko kontrola zuen. Esklaboa zigortzen bazuen ere, legea bere alde zuen jabetza pribatua zen heinean. Gainera, hirugarren batek haren esklabo bat astintzen bazuen, jabeak kalte-ordaina eskuratzeko eskubide osoa zuen. Animaliak bezala tratatuak izaten ziren:

(...) tratados en pocos aspectos como un ser humano, amontonados y encadenados en cárceles, marcados a fuego como los animales, insuficientemente

alimentados; revendidos cuando se volvían viejos o inválidos, y flagelados (Pareti, 1953: 290).

Horrekin guztiarekin K.a. II. mendetik aurrera berriro agertzen dira esklaboen matxinadak, iraultza-saioak, eta, muturreko ekintza bezala, gerrak. K.a. 198-185 bitartean hiru esklabo-matxinadari buruzko berriak jaso ditu tradizioak. Lehena K.a. 198an egin zuten Sezian zeuden 500 esklabo kartagoarrek (Livio, XXXII, 26, 1-7). II. Gerra Punikoan garaile atera ondoren, hainbat esklabo kartagoar geratu ziren Erromaren lurraldeetan. Livioaren esanetan, 500 esklabo horiek Kartagoko familia boteretsuetako kideak ziren. II. Gerra Punikoan lorturiko diruarekin Seziako hainbat jende esklaboak erosiak zituen. Guztiak elkartu ziren eta altxamendu bat egin zuten. Hiriko pretorea zen Luzio Kornelio Lentulok esklaboen asmoen berri jakin zuen bi esklaboren eskutik, eta Senatutik matxinoen asmoekin amaitzeko agindua jaso zuen. Seziara abiatu zen 2.000 gizonekin eta buruzagiak atxilotu zituen. Kartagoarren asmoen berri emandako bi esklaboei askatasuna eman zien sari moduan. Saiakera horren ondorio zuzen bezala, esklaboek Preneste hartu nahi zutela jakin zuen pretoreak. Berriz ere matxina-tuekin amaitzea lortu zuen pretoreak, eta haietako 500 exekutatu zituen (Livio, XXXII, 26, 16-17).

Bigarren matxinada K.a. 196an gertatu zen Etruriako eskualdean. Esklaboekin amaitzeko, Manio Azilio Glabrio pretorea bidali zuen Senatuak hiriko bi legioetako batekin batera. Garaile atera zen; esklaboetako asko preso hartu zituen, eta beste asko guda-zelaian hilik geratu ziren. Matxinada hasi zutenak gurutzean hil ziren (Livio, XXXIII, 36, 1-2).

Azken berria K.a. 185ekoa da. Tarentoko gobernaria zen Luzio Postumok soldaduak hartu behar izan zituen matxinatu zen artzain-talde garrantzitsu batekin amaitzeko. Postumo garaile atera zen: esklaboetako batzuk preso hartu eta 7.000 kondenatu egin zituen (Livio, XXXIX, 29, 8). Hiru berri horien ostean egoera baretzen da K.a. II. mendeko azken herena arte. K.a. 136-70 urteen bitartean Erromak sekula pairatuko dituen esklabo-iraultza handienak gertatuko dira.

3. Siziliako esklabo-erreboltak

3.1. I. Esklabo Gerra, K.a. 136-132²

II. Gerra Punikoa amaitu zenetik, K.a. 201ean, Siziliak oparotasun-garai bat bizi izan zuen 60 bat urtean. Oparotasun horren ondorioz, Ekialdeko Mediterraneoko merkatuetatik etorriak ziren hainbat esklabo iritsi ziren. Gogoratu beharra dago esklabo-merkatu nagusiak bertan zeudela: Kios eta, batez ere, Delos aipatzekoak dira (Brossard, 1976: 130). Ekialdeko esklabo horiez gain, gerra zahar edo berrien ondorioz esklabotzara eroritako bertakoak ere aurki zitezkeen Sizilian. Horiek guztiak gogor tratatuak izaten ziren, eta ia ez zitzaizen arropa eta janaririk ematen (Diodoro, XXXIV, 2, 16).

2. I Esklabo Gerra bezala izendatzea erabaki dut I Esklabo Errebolta edo Iraultza beharrean, Aymard eta Auboyerri (1980: 252) jarraituz: «Los romanos llamaron "guerras serviles" a estas grandes sublevaciones porque su represión exigió verdaderas operaciones militares».

Esklabo-iraultza ulertzeko arrazoi nagusiak bi izan daitezke. Alde batetik, askatasun-nahia, eta, bestetik, nagusiengandik jasotzen zuten tratu txarra. Oso era gogorrean zigortuak izaten ziren:

(...) marcados a fuego, golpeados, encerrados en celdas, muchas veces eran privados de comida y vestidos y obligados a robar a otros para poder mantener sus mínimas necesidades (Pareti, 1953: 298).

Enna hirian Damofilo izeneko gizon bat zegoen. Bere esklaboak neurritz gora esplotatzen omen zituen aipaturiko neurriak erabiliz. Esklaboak tratu hori jasan ezinik zebiltzan. Bilerak egin zituzten ezkutuan eta errebolta bat egiteko ideia gorpuzten hasi zen. Azkenean martxan jarri zen. Diodororen lanari jarraituz gero, errebolta K.a. 136. urtearen amaieran hasi zela pentsa daiteke, Ipseo pretore berria Siziliara iritsi baino lehenago³.

Esklaboen erreboltaren piztailea Euno esklabo siriarra izan zen. Esklaboen artean botere magikoak zituelako zurrumurrua zabaldua zegoen. Horregatik, egoeraren aurrean zein bide hartu behar zuten kontsultatu nahi izan zuten.

Beste esklaboen aurrean jainko siriarraren baten mezua jaso zuelako itxurak egin zituen. Jainkoak lagun zituztela sinestarazi ostean, armak hartu eta askatasunerako bidea har zezaten bultzatu zituen (Floro, II, VII, 4). Berehala 400 bat esklabo bildu ziren Eunoren inguruan eta Ennarantz abiatu ziren (Diodoro, XXXIV, 2, 16)⁴. Hirira sartzearekin batera, biztanleak hiltzeari ekin zioten. Esklaboen indarra zela eta, hiriko hainbat esklabo bildu zitzaion Eunoren taldeari bere nagusiak hil ostean. Damofilo hiriko plazan publikoki erail ondoren, bere burua errege izendatu zuen Eunok, Antioko izena hartuta (jatorri siriarra zuela argi ikusten da, Ekialdeko erreinuetako erregeen izen oso zabaldua baitzen Antioko). Bere konkubina erregina izendatu zuen, eta Sira jainkosaren babesia zuela esan zien esklaboei.

Urte berean, Agrigenton beste esklabo-talde bat altxatu zen Kleonen aginduetara. Berau siziliarra zen eta 5.000 bat gizonez osaturiko armada bildu zuen. Euno erregetzat onartu eta, jeneral-kargua harturik, Euron batu zitzaion. Eunok, bitartean, 6.000 gizoneko armada osatu zuen, eta Kleonen esklaboen laguntzaz erromatar armadari aurre egiteko prest aurkitu zen.

K.a. 135. urtearen hasieran Luzio Ipseo pretorea iritsi zen bere kargua hartzera. Berarekin batera 8.000 gizonez osaturiko armada ekarri zuen, baina askogatik gairiditzen zuen armada batekin egin zuen topo eta menderatua izan zen, esklaboen armada jadanik 20.000 gizonez osaturik baitzegoen (Diodoro, XXXIV, 2, 18). Urte horretan bertan esklaboei Morgantina eta Tauromenio herriak hartu zituzten, Agrigento suntsitu eta Katania arpilatu.

Erroman, Siziliako esklaboen gerrak luzerako zuela ikusten hasi zenez, K.a. 134an urteko kontsuletako bat bidaltzea erabaki zen, Gaio Fulvio Flako. Indar-dife-

3. Data horren inguruan eztabaidak daude. Anselmo Baronik (1990: 973), K.a. 140-139an kokatzen du, baita Finleyk (1989) ere. Gehiengoa, hala ere, K.a. 136. urtearen alde agertzen da, besteak beste Pareti (1953) eta Sánchez-León (1991).

4. Floro II, VII, 6. Honek, ordea, Eunoren inguruan antolaturiko esklabo-kopurua 2.000koa zela esaten du.

rentzia zela eta, berriz ere erromatar armadak porrot egin zuen. K.a. 133an berriz ere urteko kontsuletako bat bidaltzea erabaki zen. Oraingoan Luzio Kalpurnio Pison izan zen hautatua, jadanik K.a. 136an Sizilian pretore bezala aritu zena, baina zorte handiegirik izan ez zuena. K.a. 133an ordea zorte hobea izan zuen Pisonek. Garaipen batzuk eskuratu zituen eta Sizilian zehar zeuden armada erromatarrek berriz ere antolatu zituen. Morgantina berreskuratu zuen eta erasoan 8000 esklabo hil zituen. Preso hartu zituztenak exekutatuak izan ziren. Ezbehar batengatik izan ez balitz, pentsa liteke Pisonek berak amai zezakeela gerrarekin, baita Enna berreskuratu ere. Gaio Tito, zaldunen prefektua zena, esklaboen armadak garaitu zuen, ordea, eta Pisonen indarrak nabarmen gutxitu ziren.

Gerraren amaiera K.a. 132an etorriko da. Berriz ere Sizilia ondo ezagutzen zuen pertsona bat bidali zuen Erromak, aduanen begirale izandako Publio Rupilio, K.a. 132an kontsula zena. Pisonekin gertatu ez bezala, ekintza guztietan zortea lagun izan zuen. Tauromenio berreskuratu zuen eta Kleon jeneralaren anaia preso hartu. Hori bai, setio latz baten ostean hartu zuten herria. Hainbeste luzatu zen setioa, non esklaboek, irauteko beren seme-alabak, emazteak eta beste esklaboak jan behar izan zituzten (Diodoro XXXIV, 2, 20).

Horren ostean Enna baino ez zen geratzen esklaboen esku. Kleon hiriaren setioa hausten saiatu zen, baina porrot egin zuen. Azkenean, traizio bat zela medio, erori zen hiria. Kleonek bere anaia erromatarren esku zegoela ikusi zuenean, hiriko ateak ireki zituen haren bizitzaren truke. Eunok ordea ihes egitea lortu zuen eta berarekin 2.000 bat gizon eraman zituen, eta hiriaren defentsan 20.000 esklabo hil ziren (Orosio, V, 9, 7). Eunok bere burua galdurik ikusi zuenean, bere gortetik geratzen zitzaion apurrarekin, sukaldari bat, okina, masajista eta bufoiarekin (Diodoro, XXXIV, 2, 22), kobazulo batean ezkutatzea erabaki zuen. Preso hartu zutenean, Morgantinara eraman zuten eta bertako espetxean hil zen.

Garaipena zela eta, *triumphus* bat eskuratu zuen Rupiliok eta K.a. 131. urterako Siziliako prokontsul izendatu zuten. Uhartea berriz ere antolatzeko agindua jaso zuen; *Lex Rupilia* delakoan berrantolaketa honetarako oinarriak ezarri zituen.

Lehen Gerra horren balantze bat egiteko orduan, iturri klasikoetan ezadostasunak aurki litezke. Ezadostasun horiek batez ere armadak osatzen zituzten kopuruaren inguruak dira, bai esklaboen bai erromatarren armadei dagokienez.

Diodororen arabera, esklaboen armadak 200.000 gizon izan zituen momenturik gorenean. Diodorok iturri gisa Posidonio erabiltzen duenez, badirudi honi leporatu beharreko gehiegikeria dela. Hori bai, esklaboen armadan horiez gain nekazari pobreak ere egon zitezkeela kontuan hartu beharra dago, baina inondik inora ez zen halako kopuruetara iritsiko. Liviok, bestalde, kopuru ezberdinak erabiltzen ditu; Kleonen armadak bakarrik 70.000 esklabo zituela jasotzen du (Livio, *Períocas*, 56, 11). Florok, bestalde, 60.000ko kopurua aipatzen du jadanik K.a. 136. urtean Eunoren armadari dagokionez (Floro, II, VII, 6). Horren arabera, Kleon eta Eunoren armadak batu zirenean 130.000 esklaboko armada baten aurrean egongo ginатеke. Hildakoei dagokionez ez dago datu konkreturik. Hala ere, Posidoniok eskaintzen duen milioi bat hildakoren kopurua neurritz gorakoa da dudarik gabe.

Aipatu beharra dago esklaboen aurka bidaliriko erromatarren kopuruaren inguruan sortzen diren nahasteak. Azaldu bezala, lehen bi urteetan pretoreen esku egon zen esklaboen aurkako armadaren gidaritza, eta hurrengo bietan kontsuletako baten esku. Florok, ordea, 4 pretore garaituak izan zirela esaten du: Manlio, Lentulo, Pison eta Ipseo (II, VII, 7). Interpretazio-akats bezala ulertu beharra dago. K.a. 136an Pison izan zen eta 135an Ipseo, baina gerora ez. Horregatik, Manlio eta Lentulo menpeko batzuk izango zirela pentsatu behar da. Bestalde, esklaboen aurkako garaipena Marko Perpenak lortu zuela esaten du (II, VII, 7), baina hori legatua zen, eta gerraren zuzendaria, berriz, Rutilio kontsula.

Kontuan izan beharra dago halako gerra edo iraultza bat gertatzen denean berria berehala zabaltzen dela, eta beste leku batzuetan ere saiakerak izaten direla. Siziliako I Esklabo Gerra horri dagokionez, ezin uka liteke oihartzun handia izan zuela. Erroman bertan 150 esklabo altxatu ziren, Minturnon beste 450, gurutzean hil zituztenak, eta Sinuesan 4.000, K.a. 133an Gaio Zezilio Metelo eta Gaio Servilio Zepionek garaitu zituztenak. Atikako zilarrezko meategietan beste 1.000 esklabo altxatu ziren, eta Heraklito pretoreak garaitu zituen. Azkenik, Delosen bertan esklaboek saiakera bat egin zuten, baina bertako biztanleek egoera kontrolatu zuten.

Amaitzeko, komenigarria litzateke Siziliako esklaboen gerra horren momentu berean Pergamoko erreinuan izan ziren gatazkak aipatzea. Bertako erregea zen Atalo III.a K.a. 133an hil zen, eta, testamentuaren arabera, erreinua erromatar herriari utzi zion (Floro, I, 35)⁵. Horrek arazoak ekarri zituen, bai Erroman (arestian aipaturiko Tiberio Senpronio Grakoren proposamena) baita Pergamon bertan ere. Atalo III.aren erabakiaren aurka Aristoniko altxatu zen K.a. 133-129 urteen bitartean. Badirudi Atalo III.aren aita Eumenes II.aren sasikume bat zela. Nobleziaren alderdi batek lagundurik errebolta bat bultzatu zuen. Ez zen bete-betean esklabo-gerra bat izan, baina badirudi bere armadan esklaboek ere parte hartu zutela, eta, horren ondorioz, tradizioak esklabo-matxinaden testuinguruan hartu izan du Aristonikoren errebolta. Hala ere, garrantzia izan zuen matxinada bat izan zen, Publio Lizinio Kraso, K.a. 131ko kontsuletako bat zena, Aristonikoren aurka erori baitzen (Livio, *Periochae*, 59, 4). Erreboltaaren amaiera K.a. 130eko kontsuletako bat zen Marko Perpenak lortu zuen: Aristoniko hartu eta Erromara bidali zuen.

3.2. II. Esklabo Gerra, K.a. 104-101

3.2.1. Italiar Penintsula

K.a. 136-132 urteetan gertatu bezala, II. mendearen amaieran bigarren esklabo-gerra bat izan zen, eta berriz ere Sizilian gertatu zen. Hala ere, lehen txinparta penintsula italiarrean jazo zen, Sarno ibaiaren bailaran dagoen Nuzeria herrian, Kanpaniako eskualdean. Gerora Atikara eta Siziliara zabalduko zen, eta garrantzi handiena uhartean izango zuen. Iturriek jarraiki, ikus daiteke bigarren gerra hori ez zela lehena bezain garrantzitsua izan, ez baitzuen hark adina jende mugitu eta ez baitzen hainbeste zabaldu.

Nuzerian 300 esklabo altxatu ziren eta berehala zigortu zituzten. Jarraian Kapuan beste 200 esklabo matxinatu ziren, baina hori ere berehala menperatu

5. Ikus, halaber, Livio, *Periochae*, 59, 3 eta Justino, XXXVI, 4, 5.

zuten. Azkenik, eta Kapuatik hurbil, Tito Vezio izeneko zaldun erromatar batek zuzendurik, hirugarren altxamendu bat izan zen (Diodoro, XXXVI, 2, 1-2)⁶.

Tito Vezioren altxamendua baldintza berezi batzuen testuinguruan ulertu behar da. Familia aberatseko zalduna zen eta, beraz, teorian ez zuen inolako arazo ekonomikorik pairatu behar. Gurasoen aberastasunei esker, esklabo eme bat erosi zuen, eta epe baten buruan ordainduko zuela zin egin zuen. Epea amaitu zenean, ez zuen zorra kitatzeko dirurik eta epea beste 30 egunez luzatzea lortu zuen. Baina bigarren epe hori iragan zenean, aurrekoen egoera berean aurkitu zen. Ondorioz, bere esklaboak altxarazi zituen berak bere burua erregetzat aldarrikatzen zuen bitartean. Gerora ordainduko zituela aginduta, 500 armadura erosi zituen eta 400 esklabo prestatu zituen ezkutuan. Berak diadema edo koroa bat ezarri zuen bere buru gainean, purpurazko mantu batez inguratu zuen gorputza, eta liktoreak hartu zituen bere aurretik bidea egin zezaten⁷. Hartzekodunengana abiatu zen, eta erail egin zituen (Diodoro, XXXVI, 2, 4).

Inguruko herrietara mugitu zuen bere armadatxoa; bildu nahi zitzaizkionak onartu eta aurka agertzen zirenak hil egin zituen. Laster 700 gizon izan zituen inguruan, zenturietan antolatu zituen eta babesleku bat eraiki zuen. Erroman, Senatuak gertaturikoaren berri izan zuenean, Luzio Lukulo pretoreari eman zion erreboltarekin amaitzeko eskumena. Honek 700 soldadu hartu zituen eta Kapuarantz jo zuen. Bertara iristerako 4.000 soldadu eta 400 zaldizko zituen berekin. Tito Veziok jadanik 3.500 bat gizon zituen eta inguruko muino batera jo zuen defentsa-posizio bat izatearren (Diodoro, XXXVI, 2, 5). Nahiz eta lehen momentuan matxinatuek abantaila izan, Vezioren jenerala zen Apolonio erosi egin zuen Lukulok. Apoloniok bere buruzagia saldukerian eman behar zuen, eta trukean askatasuna jasoko zuen. Erromatarren eta bere aurka jarritako esklaboen artean aurkitu zenean, bere buruaz beste egin zuen Veziok. Erromatarrek Apolonio izan ezik, esklabo guztiak hil zituzten, eta penintsula italiarreko altxamenduari amaiera eman zioten.

3.2.2. Siziliako Gerra

Arestian aipaturikoa pizgarri bat izango zen, baina inolaz ere ez Siziliako altxamenduaren benetako zergatia. Arrazoi nagusia Erromak bizi zuen egoera zailean bilatu beharko litzateke. Zinbrioen aurkako gerra burutzera zihoan Erroma eta Gaio Mario kontsulak soldaduak behar zituen. K.a. 113-101 tartean teutoi eta zinbrioen aurka hainbat gerra egin zituzten erromatarrek. K.a. 104an Gaio Mario kontsul hautatua izan zen bigarren aldiz (lehenengoz 107an izan zen eta 103-86 bitarteko epealdian beste 5 aldiz hautatuko dute, erromatarren tradizioak goitik behera hautsi zituzten neurrien bidez). Senatuak zinbrioen aurkako kanpainiaren gidaritza eman zion Mariori.

Mariok ez zuen behar beste soldadu aurkitzen eta, erromatarren arteko tradizio zaharrenetarikoa baten aurka, erromatar hiritarrak ez zirenak ere armadan

6. Zaldun erromatarraren izenaren inguruan, Diodororen lanean bi izen jasotzen dira: Tito Vezio (XXXVI, 2, 2) eta Tito Minuzio (XXXVI, 2, 6). Badirudi kontserbatzen diren bi bertsiioei zor zaiola ezberdintasuna. Tito Vezio aukera erabili dut gehien aipatzen dena hori delako.

7. Purpura kontsulen zeinua zen. Liktoareak funtzionario publikoak ziren, pretore eta kontsulak laguntzen zituztenak.

sartzeko baimena eskatu zuen. Senatuak itsasoz besteko probintzietako gizonak armadan sartzeko baimena eman zion. Mario Asia Txikiko Bitiniako erresumara joan zen, eta Nikomedes erregeari soldaduak eskatu zizkion. Hark ezetz esan zion, bere herritar gehienak erromatar probintzietan esklabo zirela argudiatuta.

Senatuak dekretu baten bidez aliatuak ziren esklaboak askatzeko agindua eman zuen. Hori ikusita, Lizinio Nerva Siziliako pretorea, esklabo askori askatasuna ematen hasi zen. Egun gutxitan 800 esklabok berreskuratua zuten askatasuna (Diodoro, XXXVI, 3, 3). Baina esklaboen jabeak zirenak kexati agertu ziren Nervaren aurrean. Horregatik, honek erabakia bertan behera utzi zuen eta esklaboei askatasuna emateari utzi egin zion. Beregan agertzen ziren esklaboak jabeari itzultzen zizkion⁸.

Esklaboek Sirakusa utzi egin zuten eta Palikos izeneko gune sakratuan bildu ziren; lapurretak egiten zituzten handik. Bitartean, uharteko beste gune askotan esklaboen altxamenduak agertu ziren. Lehen gerran gertatu bezala, honetan ere nekazari pobre askok bat egin zuten esklaboen matxinadarekin, lurra eskuratze-ko zuten bide bakarra zela pentsatzen baitzuten (Pareti, 1953: 482). Palikoseko guneaz gain, Alizian agertu zen bigarren matxinatuen taldea, Varo buru zutelarik. Hogeita hamar gizon hartu eta beren nagusiak erail zituen; gero inguruko esklaboak askatu eta muino baterantz abiatu ziren, jadanik 200 zirelarik.

Nervak berehala hartu zuen bere gain matxinadarekin amaitzeko ardura, baina ezin izan zuen asmoa aurrera eraman. Bi urte lehenago bizia barkatu zion Titinio Gadeo esklaboaz baliatu zen orduan. Gauez, beste esklabo batzuekin batera, Varoren kanpamentuan sartu zen. Harrera ona izan zuten, ihes egindako esklabotzat hartu baitzituzten. Nervak ateak irekirik aurkitu zituen horrela eta altxaturiko guztiak hil zituen.

Berehala Heraklea Minor hiriko lurraldeetan beste matxinada bat sortu zen, eta buruzagia, Salvio, errege izendatu zuten. Publio Kornelio erromatar hiritarraren 80 esklabo izan ziren lehen momentuan matxinatu zirenak. Erromatarra hil ostean Kapriano izeneko mendirantz abiatu ziren eta iristerako jadanik 800 ziren. Nerva berriz ere esklaboen aurka abiatu zen, baina Heraklea Minor aldera joan zen, ez baitzekien non zeuden esklaboak. Pretorea beren aurka joateko beldur zelako zurrumurrua zabaldu zen Kapriano mendian. Horrek hauengana hurbildu zen esklabo-kopurua handitzea ekarri zuen; laster 2000 izan ziren.

Nervak Marko Titinio bidali zuen Kaprianorantz 600 gizonekin. Esklaboek Titinio garaitu zuten, eta arma eta armadura gehiago eskuratu zituzten. Salvio erregetzat onartu zuten esklabo guztiek. 20.000 gizon eta 2.000 zaldizko berekin zituela, Morgantinari eraso egitea erabaki zuen Salviok (Diodoro, XXXVI, 4, 5). Nerva hiriaren laguntzan abiatu zen beste 10.000 soldadurekin. Esklaboen kanpamentuari eraso zion, hiriaren setioa zela eta ia erabat hutsik zegoen une batean.

8. Orain arte Diodororen azalpenak jarraitu ditut batez ere. Hala ere, II. Esklavo Gerra horren hasieraren beste bertsio bat ere aurki liteke Dion Kasio, XXVII, 93 atalean: Nervak entzun zuen uharteko esklaboak ez zirela ondo tratatuak eta, horregatik, laguntza eskaintzeko beregan joateko aukera eman zien. Asko hurbildu ziren Nervarengana, baina jabeak erabat aurka agertu ziren. Nervak zailtasunak egongo zirela ikustean, bertan behera utzi zuen erabakia eta esklaboei harrera ukatu zien. Babesa galduta eta jabeen erantzunaren beldur, esklaboek altxatzea erabaki zuten.

Baina Salvioen gizonak buelta eman eta erromatarrek garaitu zituzten. Horren ostean berriz ere Morgantinen setiora itzuli zen esklaboen armada. Hiriko esklaboei dagokienez, lehen unean nagusien alde jokatu zutela esan beharra dago, hauek askatasuna emango zutelara esan baitzuten. Baina Nervak hori ez zuela onartuko esan ostean, nagusien aurka jo zuten eta Salvioen aldera pasa. Horrenbestez, Morgantina matxinatuen esku erori zen.

Azken altxamendu bat izan zen une horretan Segesta eta Lilibeo eskualdean. Burua Atenion izan zen eta bere gizonak errege izendatu zuten. 10.000 gizon bildu zituen eta Lilibeo hiria setiatzea erabaki zuen, hartu ezin izan zuen arren (Diodoro, XXXVI, 5, 1).

K.a. 104. urtearen amaieran Sizilia kaosean murgildurik zegoen. Ez zegoen ziurtasunik, ez zegoen bertara joan nahi zuen erromatar jeneralik, hirietan esklaboak nagusien aurka altxatzen ari ziren eta bideetan lapurrak agertzen hasi ziren.

Salvio, erreinua antolatu nahian, 30.000 gizon zituen armadarekin Triokalarantz abiatu zen hiriburu bat eraikitzeko asmotan. Bidean Atenionen armada bereganatu zuen. Honek Salvio erregetzat onartu zuen eta Salviok jeneral izendatu zuen berau. Atenionek 3.000 gizon eramane zituen berekin, eta armadaren gehiengoa uhartean zehar bidali zuen. Baina Salvio ez zen Atenionez fidatzen eta Triokalan espetxeratu zuen.

K.a. 103an Luzio Lukulo, Tito Vezio gainezitu zuena, bidali zuen Senatuak. Berekin 17.000 soldadu eramane zituen eta zuzenean Triokalarantz abiatu zen. Atenionek, Salviok askatu zuenean, erromatarrei aurre egiteko aholkua eman zion. Borroka latza izan zen bi armaden artean. Atenion gatazkan desagertu zen eta hildakotzat jo zuten, ihes egitea lortu zuen arren. Jeneralik gabe erromatarrek aise egin zuten aurrera eta Salviok Triokalara ihes egin behar izan zuen, zelaietan 20.000 hildako utzita (Diodoro, XXXVI, 8, 4). Lukulok ezin izan zuen gerrarekin amaitu, Erromara deitu baitzuten ustelkeriaren akusaziopean. K.a. 102an Gaio Servilio pretorea iritsi zen Siziliara. Hau ere Erromara deitua izan zen Lukuloren akusazio berdinarekin, eta erbestera joan behar izan zuen. Bere postua K.a. 101an bi kontsuletako bat zen Manio Akiliok hartu zuen.

Salvioen heriotzaren ostean, Atenion izendatu zuten errege. Azken borrokan Atenion hil egin zen eta Akiliok aurrera jo zuen geratzen ziren 10.000 esklaboekin amaitzeko asmoz. Gelditu ziren 1.000 esklaboei ihes egin zuten Satiroren gidaritzapean eta, azkenean, errenditu egin ziren. K.a. 100. urtean Akilio Sizilian geratu zen uharteko egoera lasaitzeko asmoz, Rupiliok 30 urte lehenago egin zuen moduan (Livio, *Periochae*, 70, 7).

Kasu honetan balantzea egitea ez da hain erraza. Gerraren berri osotasunean ematen duen bakarra Diodoro da, eta, horregatik, konparaketak egiteko ez dago bide askorik. Baina Florok Atenion baino ez du aipatzen II. Esklavo Gerraren buruzagi eta errege bakar bezala (II, 7, 9-10). Gerraren garrantziari dagokionez aurrekoak baino garrantzi gutxiago izan zuela esan da arestian. Hala ere, Florok Atenion Euno baino krudelagoa izan zela esaten badu ere (II, 7, 10), Apianoren zatitzean Atenion ihes egin zuten esklavo gutxi batzuen erregea baino ez zen izan, eta, gainera, egun batzuz bakarrik (Apiano, *Mitridates*, 62).

Siziliako Lehen Esklabo gerrarekin gertatu zenaren antzera, kasu honetan ere matxinada paralelo bat izan zen. Atikako Lauriongo meatzeetan K.a. 104-101 bitartean esklaboak matxinatu egin ziren, eta Suniongo gotorlekuan bildu ziren. Iturriak ez dira oso argiak eta, horregatik, esklabo-matxinada horren inguruko berriak zalantzagarriak dira. Arkeologiak ere ez du argibiderik eman, eta matxinadaren garapen eta ondorioak ezezagunak dira.

4. Espartakoren Gerra

Dudarik gabe, esklabo-matxinaden punturik gorena Espartakoren altxamen-dua izango da. Antzinaroko historiografiak atentzio handiena eman zion matxinada izan zen, eta, horregatik, kasu askotan aurkakotasun ugari aurkitzen dira. Guztia K.a. 73an hasi zen Kapuako gladiadoreen eskolan. Eskola Gaio Kornelio Lentulo Batiato lanistarena zen. Bertako gehienak galiarrak eta traziarrak ziren. Horien artean Espartako izeneko traziarrak bat zegoen. Ezin da gauza argirik esan haren jatorriaz⁹. Plutarkoren arabera, gizon ikasia zen eta traziarra baino gehiago greziarra zirudien: oso indartsua, artetsua eta argia zen (*Kraso*, VIII). Apianorentzat, ordea, garai batean soldadu erromatarra izandakoa zen. Beharbada erromatar legioek eramaten zituzten tropa laguntzaileetan aritutakoa izango zen (*Gerra Zibilak I*, 116).

Dena dela, bera buru zelarik, gladiadore-talde batek ihes egin zuen, 70 gizon Apianorentzat (*Gerra Zibilak I*, 116), 78 Plutarkorentzat (*Kraso*, VIII) eta 74 Livio (*Periochae*, 95, 2) eta Eutropiorentzat (VI, 7). Gladiadoreen eskolan bertan zeuden tresnak arma gisa hartuta alde egin zuten. Bidean beste esklabo batzuk elkartu zitzaizkien eta Vesuviorantz abiatu ziren. Zortea lagun izan zuten, bidean gladiadoreen eskolarantz zihoan gurdi bat aurkitu baitzuten armaz beteta. Horren jabe egin ostean Batiatok beren aurka bidaliriko 100 soldaduak garaitu zituzten. Soldaduen armak hobek zirenez, bereak utzi eta soldaduenak hartu zituzten. Vesuviora iritsi zirenean, Espartako, Krixo eta Enomao, azken hauek jatorri zeltiarrekoak (Orosio, V, 24, 1), hartu zituzten buruzagitzat.

Senatuak berehala izan zuen matxinadaren berri eta Gaio Klaudio Glaber pretorea bidali zuen aurre egitera. 3.000 gizon eraman zituen berekin, baina zuzenean eraso beharrean, itxarotea erabaki zuen. Vesuvioko maldak zirela eta, beheko aldean abantaila izango zuela pentsatu zuen, eta, gainera, horrela nolabaiteko setioa ezartzen zuen. Esklaboak goseak eta egarriak jotzean jaisten hasiko ziren eta orduan izango zen erasotzeko ordua. Baina mendiaren alde malkartsuena defentsarik gabe utzi zuen, bertatik inolako erasorik espero ez zuelako. Hori izan zen esklaboek erabili zuten bidea eta atzetik eraso zioten Glaberren kanpamentuari. Kanpamentua esklaboek esku geratuta, hornigai asko eskuratu zituzten. Horrek inguruko esklabo, artzain eta nekazari pobreak esklaboengana hurbiltzea ekarri zuen. Une horretan esklabo-kopuruak gora egin zuen modu nabarian, 70.000 Apianorentzat (*Gerra Zibilak I*, 116) edo 40.000 Orosiorentzat (V, 24, 1).

9. Traziarra zela, ordea, tradizioak zalantzarik gabe jaso du, ikus Floro, II, 8, 8; Orosio, V, 24, 1; Plutarko, *Kraso*, VIII, 3; Apiano, *Gerra Zibilak I*, 116 ...

Senatuak jarraian Publio Varinio pretorea bidali zuen. Honen legatua zen Turio ere garaitu zuten 2.000 gizonekin eraso zienean. Varinio bera ere garaitu zuten, liktoreak hartu zizkieten eta haren zaldiaz jabetu ziren (Plutarko, *Kraso*, IX). Kanpamentuez ere jabetu ziren horrenbestez. Espartako iparralderantz mugitu zen armadarekin. Esklaboen armadaren kopuruak gora egiten zuen etengabe eta badi-rudi Espartakok kontrola galtzeko arriskua izan zuela, bere gizonak inguruko herriak eta hiriak arpilatzeraz abiatu baitziren. Bere asmoa Alpeetara zuzentzea izan zen beste aldera pasatzeko, baina eztabaidak izan ziren esklaboen armadaren barruan, eta Krixo banatu egingo zen. 10.000 gizonekin Apuliarantz abiatu zen.

Senatuak K.a. 72ko bi kontsulak bidaltzea erabakiko du: Luzio Gelio Publikola eta Gaio Kornelio Lentulo Klodiano. Krixoren bila joango da Gelio eta Gargano mendiaren inguruan zanpatu egingo du. Armadaren bi heren hilik suertatu ziren¹⁰. Lentulok, bitartean, iparraldeko bidea oztopatu zuen, Espartako Alpeetara irits ez zedin. Espartakok, itzuli beharrean, aurrera jarraitu zuen eta Gelio garaitu egin zuen. Berriz ere iparraldera jo zuen eta 10.000 gizonekin aurrera atera zitzaion Kasio, Galia Zisalpinako gobernadorea, garaitu egin zuen (Plutarko, *Kraso*, IX). Orduan, iparraldera joateari utzi eta Erromarantz abiatzen da. Jadanik 120.000 gizonezko osaturiko armada zuen (Apiano, *Gerra Zibilak* I, 117). Berriz ere bi kontsulek aurre egin zioten, baina garaituak izan ziren.

Armada Lukanian kokatu zen, Erromara zuzenean joan beharrean. Senatuak, kontsulek ezer ezin zutela egin ikusirik, Marko Lizinio Krasori eman zion gerra amaitzeko eskumena. Zuzenean Espartakoren aurka joan beharrean, Pizenan itxarotea erabaki zuen, esklaboen armadak bertatik pasatu behar baitzuen. Bitartean, bere legatua zen Mumio bidali zuen Espartako atzetik jarraitu zezan. Baina ez zuen agindua bete, Espartakori aurre egin zion eta garaitua izan zen. Krasok orduan soldaduak zigortu zituen, ihes egindako lehen 500 soldaduak hartu eta hamarretik bat erail zuen (diximatzea esaten zitzaion ohitura zahar honi, baina ordurako ez zen egiten) (Plutarko, *Kraso*, X). Hurrengoan, ordea, Kraso garaile atera zen eta 6.000 bat esklabo hil zituen. Espartakok orduan Regiora joatea erabakitzen du eta Ziliziako piratekin tratuan sartzea. Horiek, ordea, ez dute betetzen beren hitza eta ez dira agertzen beren ontziekin Espartako Regiotik ateratzeko. Siziliara igartzeko saiakera bat egiten dute esklaboek, irtenbide ona izango zelakoan, baina porrot egiten dute. Krasok orduan harresi bat eraikitzeke agindua ematen du, Espartakoren armada harresiaren eta itsasoaren artean ixteko asmoz.

Espartakok, armadaren atal bat harturik, blokeoa hautsi eta ihes egin zuen. Krasok jarraitu egin zituen Erromara joango zirelako beldurrez. Senatuak Pompeio eta Lukulo, Hispanian eta Trazian zeudenak, deitzeko asmoa zuela jakin zuenean, Espartako berehala deusezteza erabaki zuen Krasok, bestela ohoreak bestee-kin banatu beharko baitzituen (Plutarko, *Kraso*, XI). K.a. 71. urtearen hasieran esklabo eta erromatarren arteko gatazkak etengabe gertatzen dira. Baina esklaboak berriz ere banatuko dira. Atal bat Gaio Kanizio eta Katoren aginduetara banatu zen, eta Krasok 6.000 gizon bidali zituen haien aurka, baina bazetozela ohartu eta Krasok berak joan behar izan zuen bere armadarekin batera. Garaipena lortu eta 12.000

10. Livio, *Periochae*, 96, 1. Honentzat Kinto Arrio izan zen Krixo deuseztu zuena.

hildako suertatu ziren. Espartako, bestalde, Petilino mendietara abiatu zen Kinto eta Eskrofa, Krasoren legatu eta kuestoreak zirenak, atzetik zituela. Haien aurka bueltatu eta erromatarrek alde egin zuten berriro ere.

Azken garaipen horrek esklaboen adorea piztu egin zuen eta erromatarren aurka joatea erabaki zuten. Bi armadak topo egin zuten eta Espartako bertan hil zen 60.000 esklaborekin batera (Livio, *Periochae*, 97, 2). Plutarkoren arabera, Espartako zuzenean Krasoren aurka abiatu zen, baina zenturioiek bidea itxi zioten. Azkenean, inguruan zituen esklaboak ere erori egin ziren eta Espartako txikitu egin zuten (Plutarko, *Kraso*, XI). Horren ostean erromatar armadak esklaboak garaitzera zuzendu ziren. Haietako batzuk oraindik ere urte batzuek jarraitu zuten borrokan, askok bidelapur moduan. Ihes egindako asko Hispaniatik etorri zen Ponpeioren eskuetan erori zen, eta honek menperatu egin zituen. Gelditu ziren 6.000 esklaboak Erroma eta Kapua lotzen dituen bidean gurutziltzatu zituen Krasok, gertaturikoa ahantz ez zedin. Espartakoren armadatik geratu ziren esklaboak Augusto enperadorea izango zenaren aitak garaitu zituen K.a. 62an Mazedoniarako bidean zihoanean (Suetonio, *Augusto*, 3, 1; 7, 1).

5. Azken berriak: Katilinaren zimarkua

Esklabo-iraultzak Espartakoren Gerrarekin amaituko direla esan liteke. Halako mugimendurik ez da berriz ere eratu, ez esklaboei berek bultzatuta behintzat. Hala ere, Katilinaren matxinada aipatzea komenigarria da. Kasu horretan ere esklaboei parte hartu zuten, baina ez zen euren bultzatutako altxamendu bat izan, erromatar patrizio batek egindakoa baizik.

Luzio Segio Katilina (K.a. 106-62) protagonista bihurtu zen K.a. 63an estatu-kolpea eman nahi izan zuenean. Silaren diktaduraren garaian gertatutako hilketetan parte hartu zuen, eta K.a. 65ean kontsul kargurako aurkeztu zuen bere burua, baina ez zuten onartu. K.a. 63an Zizeron izendatu zuten kontsul eta Katilinak estatu-kolpea emateko asmoa zuela jakin zuenean, Senatuaren aurrean aditzera eman zuen. Katilina hiritik aterako da talde armatu baten buru jarririk. Talde horren barruan esklaboak egongo ziren agian.

Esklabo-matxinaden berri Salustiok ematen du *Katilina* lanean. Zizeronek Senatuan konjuraren berri eman bezain laster, Kapua eta Apuliatik esklaboen altxamendu baten berri iristen da (XXX, 2). Aurrerago, eta Katilina Alobroges tribukoekin tratuetan ari den unean, berriz ere esklaboen saiakera baten berri iristen da Senatura (XLVI, 3). Beste bi berri jasotzen ditu Salustiok lan berean. Lehena Katilinaren kidea zen Lentuloren esklaboei egiten dute, Lentulo kartzelatik ateratzeko asmotan. Bigarrena Ketegorenek egiten dute intentzio berdinarekin (L, 1-2). Azken berria Katilinaren armadaren inguruan ematen da. Katilinak, patrizioen ikuspuntutik, esklaboei bere armadan sartzeko aukera ukatu egiten die, egin duen estatu-kolpe saiakera gizon libreei bakarrik zegokielako (LVI, 5).

6. Azken gogoetak

Katilinaren zimarkuaren ostean, esklaboen erresistentzia-saiakerak aurreko egoerara itzuliko dira berriz ere, erresistentzia pasibora. K.a. 136-71 bitarteko

epealdian gertatutako hiru altxamendu garrantzitsuek, batez ere Espartakok gidatu zuenak, erromatarrei izua sartu zien gorputzean. Bestalde, esklaboek ere argi ikusi zuten matxinada bat aurrera eramatea ez zela batere erraza, hobekien planteatu zenak ere porrot egin baitzuen. Gainera, Marko Lizinio Krasok ezarri zien zigorra benetan erakusgarria izan zen, Kapua eta Erroma lotzen zituen bidean 6.000 gurutze geratu baitziren Espartakoren erreboltaren oroigarri moduan.

Matxinada horietan guztietan parte hartu zuten indarren kopuruari dagokionez jadanik zenbait zalantza plazaratu dira, baina, dudarik gabe, tradizioaren eskutik jaso duen tratua da azpimarragarria. Hainbat egilek matxinadei buruzko berriak jasotzen dituztela egia izan arren, oro har oso garrantzi gutxi eman zitzaie esan liteke. Esklabo-armaden kopuruaren aldetik izugarrizko zenbakiak aipatzen dituzte, baita hainbat kontsul edo pretore garaituak izan zirela ere, baina kasurik gehienetan lerro gutxi batzuetan jasotzen diren berriak baino ez dira. Plutarkok Espartakoren inguruan jasotzen dituen berriek osatzen dute pasarterik luzeena, eta paragrafo gutxi batzuk baino ez dira.

Esklaboen nahiei dagokienez ere idazle klasikoen ikuspegia baino ez dugu eta, horregatik, ikuspuntu partzial baten aurrean gaudela esan beharra dago. Inondik inora ere ezin esan liteke esklabotza-sistema deuseztera zuzenduak zirenik. Esklaboen matxinadak beren interes propioei jarraiki egin ziren, eta ez Antzinaroan normala zen instituzio bat deusezteko. Esklaboek askatasuna helburu zutela ezin uka liteke, baina erromatar sistemak berak bazuen horretarako irtenbidea libertoen bidez. Horiek esklabo izandakoak ziren, manumisioari esker pertsona askeak izatera pasaturikoak. Kasu batzuetan benetako garrantzia izatera iritsiko ziren (besteak beste Klaudio enperadorearen garaia (K.o. 41-54), aipagarri da libertoek izan zuten eragina dela eta). Libertoek behin askatasuna lortzen zutenean, beren menpe beste esklabo batzuk izateko eskubide osoa zuten; beraz, sisteman integratzen ziren.

Espartakoren kasua mito bezala geratu da historian, zinemak lagundurik neurri handi batean (gogoratu 1960ko Kubricken pelikula famatua). Halako ikuspegi erromantikoa geratu da irudi honen inguruan, eta, askotan, esklabotza deusezteko saiakera gisa hartu da.

Bibliografia

Erabilitako liburuak

- Aymard, A., eta Auboyer, J., (1980): *Roma y su Imperio*, Destino libro 75, Bartzelona, [1960].
- Baroni, A., (1990): "Cronologia della storia romana dal 300 al 31", in Momigliano, A. eta Schiavone, A. (ed.), (1990): *Storia di Roma II. L'Impero mediterraneo*, Einaudi, Torino, 967-983.
- Bradley, K.R., (1988): "The Roman Slave Wars, 140-70 BC: A Comparative perspective", in Yuge, T. eta Doi, M. (ed.): *Forms of control and subordination in Antiquity*, E.J. Brill, Tokio-Leiden, 369-376.
- Brunt, P.A., (1972): *Conflictos sociales en la República romana*, Eudeba, Buenos Aires.
- Capozza, M., (1976): *Movimenti servili nel mondo Romano in età Repubblicana dal 501 al*

- 184 a.C., Università degli studi di Padova, Roma.
- Crawford, M.I., (1981): *La República romana*, Taurus, Madrid.
- Davis, D.B., (1970): *The problem of slavery in Western Culture*, Cornell University Press, New York, [1966].
- Dumont, J.C., (1987): *Servus Rome et l'esclavage sous la république*, École française de Roma, Roma.
- Finley, M.I., (1980): *Ancient slavery and modern ideology*, New York.
- _____, (1989): *Storia della Sicilia antica*, Laterza, Bari.
- Guarino, A., (1979): *Spartaco: analisi di un mito*, Liguori, Naples.
- Hopkins, K., (1981): *Conquistadores y esclavos*, Península, Barcelona.
- Pareti, L., (1953): *Storia di Roma III*, Unione tipografico-editrice Torinese, Torino.
- Renac, A., (1972): "Espartaco y la rebelión de los esclavos" in *Historia y Vida*, 51, 60-69.
- Sánchez-León, M^a. L., (1991): *Revueltas de esclavos en la crisis de la República*, Akal historia del mundo antiguo 43, Madrid.
- Staerman, E.M., (1979): "La lucha de clases a finales de la República Romana", in *Formas de explotación del trabajo y relaciones sociales en la Antigüedad Clásica*, Akal, Madrid.
- Thebert, Y., (1991): "El esclavo", in Giardina, A. (ed.), *El hombre romano*, Alianza, Madrid, 161-200.
- Westermann, W.L., (1955): *The Slave systems of Greek and Roman Antiquity*, The American Philosophical society, Philadelphia.

Iturri klasikoak

- Apiano Alexandriakoa, (1980): *Historia romana I*, Gredos, Madrid.
- _____, (1985): *Historia romana II. Guerras civiles*, Gredos, Madrid.
- Diodoro Siziliakoa, (1967): *Diodorus of Sicily XII*, Loeb, London.
- Dion Kasio, (1970): *Dio's Roman History II*, Loeb, London.
- Estrabon, (1967): *Geography of Strabo III*, Loeb, London.
- _____, (1970): *Geography of Strabo VI*, Loeb, London.
- Eutropio, (1999): *Breviario*, Gredos, Madrid.
- Floro, (1967): *Ouvres II*, Les belles lettres, Paris.
- Justino, (1995): *Epítome de las Historias Filípicas de Pompeyo Trogo*, Gredos, Madrid.
- Livio, (1993): *Historia de Roma desde su fundación. Libros XXXI-XXXV*, Gredos, Madrid.
- _____, (1993): *Historia de Roma desde su fundación. Libros XXXVI-XL*, Gredos, Madrid.
- _____, (1995): *Períocas*, Gredos, Madrid.
- Orosio, (1982): *Historias I-II*, Gredos, Madrid.
- Plutarko, (1933): *Pompeyo*, Espasa Calpe, Madrid.
- _____, (1942): *Marco Craso*, Espasa Calpe, Madrid.
- Salustio, (1988): *La conjuración de Catilina. La guerra de Yugurta*, Alianza, Madrid.
- _____, (1995): *Sallust*, Loeb, London.
- _____, (1995): *Jugurtaren aurkako gerra*, Bibliotheca Scriptorum Classicorum Vasconica bilduma, I zkia., Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.
- Valerio Maximo, (1995): *Faits et dits mémorables I-III*, Les Belles Lettres, Paris.
- Zizeron, (1986): *Bruto*, Universidad Autónoma de México, México D.F.
- _____, (1990): *Discursos I*, Gredos, Madrid.